

Emakumeen aurkako indarkeria

Zuzenean emakumeak jasaten duen arren, gizarte osoari eragiten dio indarkeria matxistak, eta herrialde txiroetan nahiz aberatsetan gertatzen den arazoa dugu.

Datuek diotenez, Ipar Europako herrialdeetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa nabari da. Baina horrela ote da? Sekuentzia honetan, bideo-erreportaje labur batean oinarrituta, gai hau landuko duzu.

Hurrengo ariketako **bideo** laburrean, Olga Zabalgoeaskoak Europako emakumeek jasaten dituzten eraso fisiko eta sexualen inguruko zenbait datu emango dizkigu.

AZARCAK 25

HASERRE GAUDE!
estamos organizadas,
AURREAN GAITUZUE

MANIFESTAZIOAK
BAIONA
18:30 - HERRIKO ETXETIK
BILBO
20:00 - ARIAGA PLAZATIK
DOMOSTIA
19:00 - BULEBARRETIK
GASTEIZ
18:00 - ANDRA MARI ZURIATIK
IRUÑA
20:00 - GAZTELU PLAZATIK

**Gera
berrera
FEMINISTA!**
#NiUnaMencs

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA



Entzun aurretik, jarri binaka eta saiatu beheko baieztapenei buruz duzun iritzia ematen. Behean dituzue horretarako erabil ditzakezun zenbait egituraren adibideak.

- Genero-indarkeriari aurre egiteko, ezinbestekoa da gaztetxoekin lan eginez, prebentzioa lantzea.
- Emakume askok umetan bortxaketak sufritu dituzte, baina lotsagatik edota beldurragatik ez dira ezer esatera ausartu.
- Zorionez, Ipar Europako herrialdeetan gizon eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa dago eta gehiago hitz egiten da gai hauei buruz.
- Emakume feministek eginiko lanari esker, Europan gero eta emakume gutxiagok sufritzen dute indarkeria matxista, eta horri esker, arazo hau ia desagertzera iritsi da.

Idatzi zure iritzia paragrafo batean ondoko egiturak erabiliz:

Ados nago esandakoarekin / **Uste dut** egia dela / Ba, nik **ez dut uste** egoera hain larria denik / **Ez zait iruditzen** / Emakumeak zapaltzearen **aurka nago** / **Nire ustez**, emakumeak oso zapalduta daude.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

1- Indarkeriaren datuak

Orain entzun arretaz **bideoa**. Ulertu duzunaren arabera, beheko baieztapenaren hasierak dagokien amaierekin lotu behar dituzu.

Europako emakumeen eskubideak		errealitatea are gordinagoa da, izan ere, emakumeen % 30ek dio umetan ere erasoren bat jaso zutela.
Datuak begiratzuz gero...		egunero eta edozein tokitan urratzen dira.
Goi-karguetan dauden emakumeei dagokienez...		74 urte bitarteko 52.000 emakumeri egindako elkarrizketetan bildu dira.
Ehunik bost emakumek diote...		gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dago.
Ipar Europako herrialdeetan...		% 75ek jazarpen sexuala jasaten omen dute.
Bildu diren datu hauek...		noiz edo noiz bortxatu egin dutela.

2- Mugagabeak eta ehunekoaren deklinabidea

Orain ehunekoaren deklinabideari eta mugagabeei erreparatuko diezu. Hemen duzu entzun duzun erreportaje laburraren testua, baina zenbait atal kendu dizkiogu. Osa ezazu testua ematen zaizkizun erantzunetatik zuzena aukeratuta.



Ehunekoaren deklinabidea:

Euskaraz, ehunekoak (%) erabiltzean, zenbakiak mugagabearen deklinatuko ditugu. Esaterako: *Langileen % 20k (ehuneko hogeik) kontratua dauka eta ez Langileen % 20ak kontratua dauka*. Bestalde, aditza singularrean erabiliko dugu: *Galderen % 20ri gaizki erantzun diot eta ez Galderen % 20ri gaizki erantzun diet*. (Azalpen eta adibide gehiago [hemen](#) kontsulta ditzakezu).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Etxean, lanean, jendaurrean, ateak itxita, egunero eta edonon urratzen dira Europan emakumeen eskubideak. Hirutik batek, hau da, (1)_____ indarkeria fisikoa edo sexuala sufritu du. Gordinagoa da errealitatea datuok ikusita, hirutik batek dioelako haurtzaroan, (2)_____, eraso fisiko edo sexualak egin zizkiola (3)_____. (4)_____ dio, gainera, bortxatu egin dutela. (5)_____ umilazioak eta debekuak jasan dituzte indarkeria psikologikoaren biktimak dira.

Eta egoera larrienetan ere, (6)_____ ez dute sufrimendu horren berririk ematen. Goi-karguetan dauden (7)_____ jazarpen sexuala jasaten dutela dio Joanna Goodeyk. Nagusia, lankidea edo bezeroa izan daitezke erasotzaileak.

Eskandinaviako herrialdeetan eta Europa hegoaldean indarkeria matxistak ez du mugarik ezberdintzen. Baina, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dagoen Ipar Europako herrialdeetan errazago eta gehiago hitz egiten da gai honi buruz. Datuok aurrez aurre eginiko elkarrizketen ondoren batu dira. Hemezortzi eta hirurogeita hamalau urte bitarteko (8)_____ hartu dute parte.

(1)

- hirurogeita bi milioi emakumeek
- hirurogeita bi milioi emakumek
- hirurogei eta bi millioi emakumek

(5)

- Ehuneko 43ak
- %43ek
- Ehuneko 43k

(2)

- umerengan
- umeetatik
- umetan

(6)

- hamarretik seiek
- hamarreko seik
- hamarretik seik

(3)

- heldutik batek
- helduaren batek
- helduren batek

(7)

- emakumeen ehuneko 75ak
- emakumeen ehuneko 75ek
- emakumeren ehuneko 75ek

(4)

- Ehunetatik bostek
- Ehuneko bostek
- Ehuneko bostak

(8)

- 52.000tik gora emakumeek
- 52.000 emakumeek
- 52.000 emakumek

3- Zergatik da azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna?

Leonidas Trujilloren diktaduran hil zituzten Mirabal ahizpak, 1960ko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikan. Haien omenez aukeratu zuten azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna. Ondorengo testuan **irakurri** ahal izango duzu haien historia. Irakurritakoan erantzun jarraian dituzun galderak.

Zergatik da azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna?




Leonidas Trujilloren diktaduran hil zituzten Mirabal ahizpak, 1960ko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikan. Handik urte batzuetara, 1993an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak adierazpen bat onartu zuen emakumeen aurkako indarkeriari buruz, eta egun hori emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna izendatu zuen.

Batzar horretan argi ikusi zen adierazpen bat egin behar zela, eta Estatuaren konpromisoa ere behar zela, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko.

Mirabal ahizpen borroka

Minerva, Maria Teresa eta Patria Mirabal, hiru ahizpa hauek gogor borrokatu zuten Dominikar Errepublikan, 1950eko hamarkadan, Leonidas Trujillo diktadorearen erregimenaren aurka. Horregatik, behin baino gehiagotan espetxeratu zituzten, bortxatu eta torturatu. Hala ere, ez zuten etsi euren borrokan.



Patria, Minerva eta Maria Teresa Mirabal

Hiru ahizpetatik bi, Minerva eta Maria Teresa, epaitu egin zituzten, 1960ko maiatzaren 18an, Santo Domingon; eta haien senarrak ere bai. Honako delitu hau leporatu zieten: “Estatu dominikarraren segurtasunari erasotzea”.

Espetxera bidali zituzten guztiak, baina abuztuaren 9an aske utzi zituzten bi ahizpak. Senarrak ez.

1960ko azaroaren 25ean Mirabal ahizpak espetxera joan ziren senarrak bisitatzera. Patria ahizpa ere joan zen bisitan. Espetxetik ateratakoan, etxerako bidean, Inteligentzia Militarraren Zerbitzuko heriotza-eskuadroi batek gelditu zituen errepidean. Auto batera igoarazi zituzten hirurak *La Cumbre* herrira eramateko. Han hil egin zituzten, eta gero jipoitu, jendeak auto-istripuz hil zirela pentsatzeko.

Hiru ahizpen hiltzaileak 1962an epaitu zituzten. Hainbat urtetako espetxe-zigorra ezarri zieten, baina ez zuten denbora luze eman kartzelan. Izan ere, Trujilloren aldeko hainbat talderen laguntzari esker, Dominikar Errepublikatik ihes egitea lortu zuten.

1- 50eko hamarkadan zergatik atxilotu zituzten behin baino gehiagotan Mirabal ahizpak?

- a) Trujillo diktadoreak bortxatu zituela salatzeagatik.
- b) Dominikar Errepublikako erregimenaren kontra borrokatzeagatik.
- c) Trujillo diktadorearen borrokan etsitzeagatik.

2- Nor epaitu zuten 1960ko maiatzaren 18an estatuaren segurtasunari erasotzeagatik?

- a) Hiru ahizpak eta horietako biren senarrak.
- b) Hiru ahizpetako bi eta hiruren senarrak.
- c) Bi ahizpa eta haien senarrak.



3- Nor utzi zuten aske abuztuaren 9an?

- a) Bi ahizpak bakarrik; haien senarrak, ordea, ez.
- b) Bi ahizpak eta bietako baten senarra.
- c) Hiru ahizpetako bat eta haren senarra.

4- Non eta nola hil zituzten ahizpak?

- a) Espetxerako bisita batean Inteligentzia Zerbitzuek harrapatu, jipoitu eta hil egin zituzten.
- b) Espetxerako bidean, errepidean, heriotza-eskuadroi batek harrapatu, jipoitu eta hil egin zituzten.
- c) Kartzelatik etxerako bueltako bidean, errepidean, harrapatu eta hil egin zituzten.

5- Zer gertatu zen hiltzaileekin?

- a) Hainbat urtetako espetxe-zigorra ezarri zieten, baina Trujilloren aldeko taldeen laguntzaz, lortu zuten ez joatea.
- b) Kartzela-zigorra ezarri zieten eta handik gutxira, Trujilloren zaletuen laguntzaz, ihes egin zuten.
- c) 1962an epaitu eta denbora luze eman zuten espetxean, Trujilloren aldeko taldeen laguntza izan zuten arren.

4- Emakumeek askatasunez korrika egiteko eskubidea

2018ko abenduaren 12an El Campillo (Huelva) inguruan korrika egitera atera zen Laura Luelmori irakasle gaztea. Astebete desagertuta egon ondoren, hilik aurkitu zuten korrikalaria.



Laura Luelmori gertatutakoa hizpide izango dute bideoan. Sonia kirolaria eta irakaslea da, eta 40 urte daramatza kalean korrika egiten. Horregatik, gertutik bizitzen ari da gertatutakoa. Beste hainbat emakumek bezala, bakarrik eta askatasun osoz, emakumeek korrika egiteko duten eskubidea aldarrikatu nahi du.

Hildako kirolariaren omenez, abenduaren 21ean, lasterka egiteko deialdia egin dute Bilbon.

Jarraian, ikusiko duzun bideoaren transkripzioa duzu. Ikusi aurretik bete itzazu hutsuneak hitz hauek erabiliz, eta gero konprobatu zure erantzunak bideoa entzunez: **beldurrik / ordutan / ezezagunak / sustoak / segurtasun / taldeka / edozeini / gertutik / musikarekin**

ESATARIA.- Sonia emakumea, kirolaria eta irakaslea da. Horregatik, ___1___ bizitzen ari da Laura Luelmori gertatutakoa.

SONIA.- Berri oso txarra, oso tristea eta askok... gutariko askok hurbiletik sentitzen dugu hori. Ez zaigulako horrelako gauza gogorrik pasa, baina bai antze(ra)ko gauzak, ___2___ izan ditugu.

E.- 40 urte pasa daramatza kalean korrika egiten. Batzuetan bakarrik, besteetan ___3___.

S.- Bakarrik baldin bagoaz, bada, normalean ez zoaz edozein lekutara, eta edozein ___4___. Behintzat, argia egon deikela (dadila) eta ba... kotxeren bat edo pertsonaren bat ikusi dezakezun tokitik zoaz.

E.- Beti sentitu du ___5___ eza, baina orain arreta handiagoa ipintzen du.

S.- Aurikular biak eramanez gero, ez zara ezertaz ohartzen. Orduan, bat eramanez gero, niri gustatzen zait korrika egitea ___6___. Baina gutxienez entzuten duzu inguruan zer gertatzen ari den eta nik normalean aholkatzen dut hori.

E.- Milaka eta milaka emakume kalera atera dira; Durangon duela minutu batzuk. Sentimendua berbera da leku guztietan.

S.- Horrelako gauza bat ___7___ gertatu ahal zaio. Ze, badakigu badagozela (badaudela) horrelako pertsonak, pentsamendu arraroak dituzten pertsonak, toki guztietan.

E.- Sare sozialetan ere emakume ezagunak eta ___8___, dena(e)k Laura gogoan. Ostiralean Bilbon gogoratuko dute.

EMAKUME KORRIKALARI BAT.- (Gaztelaniaz)

E.- Eta ez bakarrik korrika egiterakoan: emakumeok ere ___9___ gabe bizi nahi dugu.

5- Askatasunez korrika egin nahi zuen emakumea

Jarraian Katherine Switzer maratoiaren aitzindariaren historia irakurriko duzu. Erreparatu beltzez markatutako egiturei, eta horren arabera, antolatu kronologikoki Katherineren biografiako pasarterik esanguratsuenak.

Katherine Switzer, maratoian aitzindaria

Katherine Virginia Switzer aleman-estatubatuarra ez da atleta profesionala, baina **2017an** Bostongo maratoia egin zuen, **70 urterekin**. **Lehen aldiz 20 urterekin** egin zuen, **1967an**. Bera izan zen munduko lehen emakume “dortsalduna” maratoi bat bukatzen. Ez zen erraza izan. **Urte hartan** epaile bat neskari dortsala kentzen saiatu zen, maratoitik botatzen. Izan ere, **60ko hamarkadan** ez zieten emakumeei Bostongo maratoian parte hartzen uzten. Esaten zuten emakumeak ez zirela gai hiru kilometro ere korritzeko, ahulak zirela maratoirako, eta distantziak agian umetokia hondatuko ziela. Katherine Switzer, jakina, ez zegoen ados. Nola lortu zuen maratoian parte hartzea?

Nor zen Katherine Virginia Switzer?

AEBko militar baten alaba zen. Aita Alemanian zegoen soldadu; bertan jaio zen alaba **1947an**, eta **handik bi urtera** AEBra joan zen familia osoa. Neskak, **gaztetxo zenean**, hockeyan hasi nahi zuen. Aitak esan zion horretarako prestatu egin behar zuela, korritzeko egunero mila bat (1,61 Km). Katherine **12 urterekin** hasi zen hori egiten.

Urte batzuk geroago entrenatzailea jarri zioten. Neskak **20 urte zituenean**, entrenamendu-saio batean, 49 kilometro burutu zituen. Entrenatzaileak **hori ikusita**, Bostongo maratoian apuntatu zuen Katherine, K. Switzer izenarekin. Antolatzaileak ez ziren jabetu K. hori neska zela, eta 261 dortsala eman zioten. Dorsalarena garrantzizkoa zen. Zergatik? Dorsalik gabekoen denborak ez zirelako erregistratzen. Hori zioen arauak. Neskek ezin zuten parte hartu maratoian, eta mutilek bai, dorsalarekin edo gabe. Katherinek marka erregistratu nahi zuen betiko, parte hartzeaz gain.

Maratoian bultzaka

Baina gauza ez zen hain erraza izan. **1967ko maratoian** argazkilariak laster ohartu ziren, **maratoia hasiberritan**, 261 dortsala neska zela. Neska bat dorsalarekin! Zalapartarekin epaile bat ere azkar ohartu zen. Errepidean sartuta, neskari dortsala kentzen saiatu zen: “Utzi lasterketa, eta emadazu dorsal madarikatua!”, egin zion oihu! Ez zuen lortu: Katherinen mutil-lagunak, Tom Miller futbol amerikar jokalariaik, epailea espaloira bultzatu zuen.

Gertaera horiek jaso zituzten argazkiak oso ezagunak dira, eta agian horiek egin dute ospetsu Katherine Switzer. Neskak lasterketa amaitu bai, baina ez zioten denbora erregistratu; deskalifikatu egin zuten.

Eta nola diren gauzak! Beste neska batek ere parte hartu zuen **1967ko maratoi hartan**, 24 urteko Bobbi Gibb-ek. Bera izan zen helmugara heltzen lehen emakumea: ez zeukan dorsalik. Agian horregatik ez zen zalapartarik sortu, baina ez zioten marka onartu, eta bera ere deskalifikatu egin zuten.



Gertaera osoa jasotzen duen argazki-segida.

Bobbi Gibbentzat Bostongo bigarren maratoia zen 1967koa, **aurreko urtean** ere parte hartu baitzuen. Bietan dortsalik gabe aritu zen. Dortsalik gabekoek ez zuten aurretik izena eman behar, eta, hori aprobetxatuz, Bobbi Gibbek **1966ko maratoia** egin zuen. Ikusleen txalo artean sartu zen helmugara. Txaloak txalo, araudia ez zen aldatu emakumeentzat puska batean.

Baina era batera edo bestera, bi neskek argi utzi zuten gai zirela maratoia bukatzeko, emakumeak gai zirela. Beraz, **1972an**, Bostongo maratoni-antolatzaileek hainbat erabaki hartu zituzten. Adibidez, emakumeak onartzea, aitortzea Bobbi Gibb izan zela Bostongo maratoia bukatu duen lehen emakumea, eta baita 1966, 1967 eta 1968ko emakumerik azkarrena ere.



Bobbi Gibb 1966an, helmugara iritsitakoan.

1974an emakumerik azkarrena Katherine Switzer bera izan zen, eta bigarrena **1975ean**. Lorpen hauek bestelako segida izan zuten, ez ziren maila pertsonalean geratzen ari. Hau da, 27 herrialdetan 400 bat maratoi antolatu zituen talde bateko partaide bihurtu zen Katherine. Talde honek indar handia egin zuen Joko Olinpikoetan emakumezkoen maratoia izateko. Hori **1984an** gertatu zen. **Iaz, 2017an**, 70 urterekin Katherine Switzerrek berriro egin zuen Bostongo maratoia, 261 dortsal mitikoa zuela. Bere bizitzan 40 maratoi inguru egin ditu. Denbora gutxienekoa da.

Ordenatu kronologikoki Katherineren bizitzako pasarte hauek.

Katherinek, lehen aldiz, 49 kilometro egin zituen korrika, entrenamendu saio batean.	1	1947an
Bobbi Gibb izan zen Bostongo maratoian helmugara iritsi zen lehenengo emakumea, baina, berriz ere, dortsalik gabe.		1949an
70 urte zituela Bostongo maratoian parte hartu zuen, 261 dortsala soinean.		gaztexotan
Argazkilariak konturatu ziren 261 dortsala zeraman korrikalaria emakumezkoa zela.		1959an
Katherine Alemanian jaio zen, haren aita bertan baitzebilen soldadu.	1	1966an
Bostongo maratoiko antolatzaileek adostu zuten lasterketan emakumeak onartzea eta Bobbi Gibbi maratoia bukatu zuen lehenengo emakumea zela aitortzea.		1967, 20 urte zituenean
Jokeyrako prestatzeko, korrika hasi zen.		1967an
Bostongo maratoian izena eman zuen, baina izenaren lehenengo hizkia erabili zuenez, epaileek ez zuten jakin emakumea zela.		1967, maratoia hasi berritan
Emakumeek lehen aldiz parte hartu ahal izan zuten maratoian Joku Olimpikoetan.		1967, maratoiaren bukaeran
Katherineren familia osoa AEBetara itzuli zen, aitaren jaioterrira.		1972an
Katherine Switzer bigarren emakumerik azkarrena izan zen maratoian, eta halaxe errekonozitu zioten.		1974an
Katherinek Jokeyan jokatzeko hasi nahi zuen.		1975ean
Bobbi Gibbek maratoian parte hartu zuen, baina dortsalik gabe zihoanez, ez zuten bere marka erregistratu.		1984
Katherine Switzer emakumerik azkarrena izan zen maratoian, eta halaxe errekonozitu zioten.		2017an

Erreparatu Katherine Switzer biografiaren ereduari eta azpimarratutako denborazko egiturak erabiliz, kontatu gizateriaren historiari ekarpen garrantzitsua egin dion emakume baten istorioa.

.....

.....

.....

.....

.....

1- Indarkeriaren datuak

Europako emakumeen eskubideak...	egunero eta edozein tokitan urratzen dira.
Datuak begiratzuz gero...	errealitatea are gordinagoa da, izan ere, emakumeen % 30ek dio umetan ere erasoren bat jaso zutela
Goi-karguetan dauden emakumeei dagokienez...	% 75ek jazarpen sexuala jasaten omen dute.
Ehunetik bost emakumek diote...	noiz edo noiz bortxatu egin dutela.
Ipar Europako herrialdeetan...	gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dago.
Bildu diren datu hauek...	74 urte bitarteko 52.000 emakumeri egindako elkarrizketetan bildu dira.

2- Mugagabeak eta ehunekoek deklinabidea

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Etxean, lanean, jendaurrean, atea itxita, egunero eta edonon urratzen dira European emakumeen eskubideak. Hirutik batek, hau da, (hirurogeita bi milioi emakumek) indarkeria fisikoa edo sexuala sufritu du. Gordinagoa da errealitatea datuok ikusita, hirutik batek dioelako haurtzaroan, (umetan), eraso fisiko edo sexualak egin zizkiola (helduren batek).

(Ehuneko bostek) dio, gainera, bortxatu egin dutela. (Ehuneko 43k) umilazioak eta debekuak jasan dituzte indarkeria psikologikoaren biktimak dira.

Eta egoera larrietan ere, (hamarretik seik) ez dute sufrimendu horren berririk ematen. Goi-karguetan dauden (emakumeen ehuneko 75ek) jazarpen sexuala jasaten dutela dio Joanna

Goodeyk. Nagusia, lankidea edo bezeroa izan daitezke erasotzaileak.

Eskandinaviako herrialdeetan eta Europa hegoaldean indarkeria matxistak ez du mugarik ezberdintzen. Baina, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna dagoen Ipar Europako herrialdeetan errazago eta gehiago hitz egiten da gai honi buruz. Datuok aurrez aurre eginiko elkarrizketen ondoren batu dira. Hemezortzi eta hirurogeita hamalau urte bitarteko (52.000 emakumek) hartu dute parte.

3- Zergatik da azaroaren 25a...

1- 50eko hamarkadan zergatik atxilotu zituzten behin baino gehiagotan Mirabal ahizpak?

b) Dominikar Errepublikako erregimenaren kontra borrokatzeagatik.

2- Nor epaitu zuten 1960ko maiatzaren 18an estatuaren segurtasunari erasotzeagatik?

c) Bi ahizpa eta haien senarrak.

3- Nor utzi zuten aske abuztuaren 9an?

a) Bi ahizpak bakarrik; haien senarrak, ordea, ez.

4- Non eta nola hil zituzten ahizpak?

c) Kartzelatik etxerako bueltako bidean, errepidean, harrapatu eta hil egin zituzten.

5- Zer gertatu zen hiltzaileekin?

b) Kartzela-zigorra ezarri zieten eta handik gutxira, Trujilloren zaletuen laguntzaz, ihes egin zuten.

4- Emakumeek askatasunez korrika egiteko eskubidea

ESATARIA.- Sonia emakumea, kirolaria eta irakaslea da. Horregatik, gertutik bizitzen ari da Laura Luelmori gertatutakoa.

SONIA.- Berri oso txarra, oso tristea eta askok... gutariko askok hurbiletik sentitzen dugu hori. Ez zaigulako horrelako gauza gogorrik pasa, baina bai antze(ra)ko gauzak, sustoak izan ditugu.

ESATARIA.- 40 urte pasa daramatza kalean korrika egiten. Batzuetan bakarrik, besteetan taldeka.

SONIA.- Bakarrik baldin bagoaz, bada, normalean ez zoaz edozein lekutara, eta edozein ordutan. Behintzat, argia egon deikela (dadila) eta ba... kotxeren bat edo pertsonaren bat ikusi dezakezun tokitik zoaz.

ESATARIA.- Beti sentitu du segurtasun eza, baina orain arreta handiagoa ipintzen du.

SONIA.- Aurikular biak eramanez gero, ez zara ezertaz ohartzen. Orduan, bat eramanez gero, niri gustatzen zait korrika egitea musikarekin. Baina gutxienez entzuten duzu inguruan zer gertatzen ari den eta nik normalean aholkatzen dut hori.

ESATARIA.- Milaka eta milaka emakume kalera atera dira; Durangon duela minutu batzuk. Sentimendua berbera da leku guztietan.

SONIA.- Horrelako gauza bat edozeini gertatu ahal zaio. Ze, badakigu badagozela (badaudela) horrelako pertsonak, pentsamendu arraroak dituzten pertsonak, toki guztietan.

ESATARIA.- Sare sozialetan ere emakume ezagunak eta ezezagunak, dena(e)k Laura gogoan. Ostiralean Bilbon gogoratuko dute.

EMAKUME KORRIKALARI BAT.- (Gaztelaniaz)

ESATARIA.- Eta ez bakarrik korrika egiterakoan: emakumeok ere beldurrik gabe bizi nahi dugu.

5- Askatasunez korrika egin nahi zuen emakumea

1947an	Katherine Alemanian jaio zen, haren aita bertan baitzebilen soldadu.
1949an	Familia osoa AEBetara itzuli zen, aitaren jaioterrira.
gaztetxotan	Jokeyan jokatzeko hasi nahi zuen.
1959an	Jokeyrako prestatzeko, korrika hasi zen.
1966an	Bobbi Gibbek maratoian parte hartu zuen, baina dortsalik gabe zihoanez, ez zuten bere marka erregistratu.
1967, 20 urte zituenean	Lehen aldiz 49 kilometro egin zituen korrika, entrenamendu saio batean.
1967an	Bostongo maratoian izena eman zuen, baina izenaren lehenengo hizkia erabili zuenez, epaileek ez zuten jakin emakumea zela.
1967, maratoia hasi berritan	Argazkilariak konturatu ziren 261 dortsala zeraman korrikalaria emakumezkoa zela.
1967, maratoiaren bukaeran	Bobbi Gibb izan zen Bostongo maratoian helmugara iritsi zen lehenengo emakumea, baina, berriz ere, dortsalik gabe.
1972an	Bostongo maratoiko antolatzaileek adostu zuten lasterketan emakumeak onartzea eta Bobbi Gibbi maratoia bukatu zuen lehenengo emakumea zela aitortzea.
1974an	Katherine Switzer emakumerik azkarrena izan zen maratoian, eta halaxe errekonozitu zioten.
1975ean	Katherine Switzer bigarren emakumerik azkarrena izan zen maratoian, eta halaxe errekonozitu zioten.
1984	Emakumeek lehen aldiz parte hartu ahal izan zuten maratoian Joku Olimpikoetan.
2017an	70 urte zituela Bostongo maratoian parte hartu zuen, 261 dortsala soinean.